

BIZITZAKO GOIZA

Zu, Malentxo liraña biotz soin gazte;
Uda murgil orduko zurbil-kolkoan,
Urdin-orizko lotik iratzar zaite
Ta jolastu alaiez egun osoan.

Gogapen larri, edo sorgin amesik,
Oraindiño ez dozu begi aurrean.
Ekin horrela! Bizitz-urak, goizetik,
Zerua dizdiztuko dautzu barnean.

Orain, bizi-naieak odei zakarra
Gogo-eguna biur baño len sarkor,
Orain, goizez, ez aitzu Goiko Aretzaz
Garari leial oro Ak bai-dautzu sor

Horrela, negar zelai au igaro usu,
Edozein dala zure oiñatz-zidorra;
Ta nai-ta urteen astunez indarra meetu,
Esku eder zenduke Jainko samulla

Otarri